

# MURMUR

Horma nola lokatzaz  
barnea markaz.  
*Lokatzarena, Ibil Bedi*

1

Bat-batean gertatu da, esku zalu batek etxeko kanila guztiak istant berean zabaldu izan balitu bezala, kolpetik. Heze-orbanak hormetan, itoginak sabaitik behera irristan. Euri hotsa dakar irratiaren murmurak. Leiho ertzeraino hurbildu naiz kikara garraio. Pareko bizilagunaren izara arrosak dantza soltean dabilta, ordea. Asfaltoa ere ez dago bustita.

2

“Hogei urtez galdutzat jotako Artozkiko artelan batzuk solidarioen eskuetan daude berriro”. Goizeroko ahots bera da; gaurkoan barnerago sartu zaidana, askoz. Ospelak jan dizkit belarri-atzeak. Akaso, familia orok gordeko ditu hitz ahoskaezin zenbait sukaldeko mahaipean.

Oroitzea min denean,  
denborak badaki isiltasuna puzten.

3

Ama, zuk nola nahiago zenuke hiltzea; erreta ala itota?

4

Oso noizean behinka baino ez zen mintzo amona aitona zenari buruz. Nostalgia gaixotu zuela kontatu zidan behin, eta tristuraz hil zela handik gutxira. Odola ur bihurtu zitzaiola. Aspaldi honetan, mihise zuri baten traza du amonaren memoriak. Nekez lotzen ditu bi hitz elkarrengana,

baina tartean-tartean haurtzaroko abestiak doinutzen ditu ezpainak ireki ere egin gabe. Umeagoa nintzenean niri kantatzen zizkidanak dira; oroitzapenen xirripa biziarazten didatenak. Faltan ditut, hala eta guztiz ere, irudi zehatzak. Faltan soinuak, eta usainak. Nago, hutsuneak idealizaziora naramala, ezinbestean; balizko edertasuna handizkatzera. Lauki-formako plaza bat gogoratzen dut, harrizko zubi goroldiotu bat, eta zubiaren ondoko putzu sakon izozkara. Latsarria ere izan bazela jakin dut gerora. Leku batzuk, tamalez, beti irensten ditu ahanzturak. Batez ere, aurrez andreek habitatuak izan badira.

Bi haur irudika ditzaket putzuaren bueltan elkarri zirika. Jostailuzko hondeamakinekin ari dira, benetakoak iritsi baino hilabete eskas lehenago. Ez dakit bi haurrak nortzuk ote diren. Artean hiru urte bete gabea nintzen eraikinak harri-pila egin zituztenean.

5

Amak hogeita hamaika zituen.

2003ko irailaren 15a zen azken muga-eguna; herria utzi behar zuten nahitaez. Orbaitz, Itoitz, Gorritz, Ezkai, Muniain eta, azkenik, Artozki. Zenbaitek men egin zioten aginduari eta, etsi-etsian, maletategiak sustraiz, erroz eta harriz beteta alde egin zuten handik, bigarren bizitza bat hutsetik eraikitzeko. Beste batzuek, baina, eustea erabaki zuten. Zetorrenari buru egitea.

Hamasei egunez mantendu ahal izan zuten herria bizirik eta, azken asteburuan, sormenari egin nahi izan zioten leku. Musikaren burrunbak dardarazi zituen teilen arteko zirrikituak, eta liburuak eta artelanak zintzilikatu zituzten elizan. Erakusketa bat antolatu zuten gutxi barru urpean gera zitekeela jakinik. Murru bete elkartasun.

Azkenean, irailaren 31n hustu zuen Guardia Zibilak Artozki, bestela ezin eta indarka.

6

Kosta egiten zait ama harrizko horma haietako bati kateatuta imajinatzea. Gaur egun oraindik ere “Itoitz gelditu” oihukatzen diharduen pintadetako bat margotzen edo, are, bere herrikideei besotik

helduta poliziaren aurka oldartzen. Erresistentzia haragitzen. Kosta egiten zait ama iraganeko borroka haren parte egitea. Kosta egiten zait, eta amorrua ematen dit. Amorrua ematen dit gizonak ikusten ditudalako. Gizonak ikusten ditut prentsako argazkietan; gizonak nire barne iruditerian. Goitik beheraino estalita badaude ere, nik ezin dut gizonak ikustea ekidin.

7

Umea nintzela hutsik egin gabe joaten ginen urtero urtegi ingurua bisitatzera. Joan bainoago eraman egiten ninduen ni, amak. Uda garaia aukeratzen zuen berariaz, ur maila baxuagoa zenez, noizbait bertan izan zenaren arrastoak gainazalerago ager zitezkeelakoan. Batek daki zenbat kilometro egingo ote zituen orotara ibilian, bere baitara bilduta. Noizean behin gelditu eta zero zabalari behatzen zion, bi begiak hodei bakanduren batean atsedentzeko beharrez-edo. Ziur Pirinioen gainean ere pausatzen zituela tarteka. Mendilerroari argazkiren bat ateratzen zion gero.

Nik “zenbat falta da?”-ka igarotzen nuen 45 minutuko auto bidaia. Behin iritsitakoan, harririk zapalena ur ñabarretara jaurtitzen aritzen nintzen, ahalik eta jauzi gehien zenbatzeko irrikaz. Zapatarien bila entretenitzen nintzen bestela, baina aireplanoen gisako zomorro hankaluzeeekiko zirrarak ere ez zidan gehiegi irauten. Lohi eta lahar artean objektu galduak bilatzeari ekiten nion orduan. Han ez zegoen txirla birrindurik, ez eta maskorrik ere. Egun batean, oliba koloreko katiuska bat topatu nuen. Beste batean, berriz, zilarrezkoa zirudien belarritako bat, eta baita eskafandra moduko bat ere, herdoilak hozkaka jana. Objektu bakoitzarentzat bizitza posible bat asmatzen saiatzen nintzen.

Asperdurak gain hartzen zidanean, kexaka hasten nintzaion amari.

“Ama, hemen ez dago ezer”.

Koskortu nintzenean, joateari utzi nion. Beti zen plan hobea lagunekin banku hotz batean eseri eta zorua pipa-azalez erabat estaltzea. Zer ote da ba nerabea izatea lagunekin ez zaudenero oso-oso garrantzitsua den zerbait gal dezakezun beldurrez bizitzea ez bada?

Koadroak lapurtu egin zituzten; eskulturak suntsitu. Herriak ere ez zituzten besterik gabe hustu, segidako urteetan urez bete zitezen. Eraitsi egin zituzten propio, zer gerta ere.

Egongo da azpian zegoen guztia xehe-xehe gogoratuko duenik. Niri beti iruditu izan zait mundutik aparteko toki bat. Udaberri aldera, goi-mendietako elur urtuak geruza berriak gainjartzen dizkio masa urdin-berdexkari. Udako eguzkia indartu ahala, ostera, harri-pila irregularrak hasi ohi dira gutxika azaleratzen. Gaitza da igartzen horietariko zein zegozkion frontoiari, zein ziren zentral elektrikoarenak, zeinek eusten zioten zubiari, zeinek zanpatzen zituzten gari aleak errotan... Ez da, beste urtegi batzuetan bezala, elizaren kanpandorrerik ageri urazaletik kanpora. Aspaldian ez da ezkil-hotsik aditzen.

Hondoan dena da hondar, dena erruina, dena itzal eta mamu.

Eta, hala ere, begiak ixten dakienak enarakumeak entzungo ditu teilatu hegal batean kantari. Mahats aihenak ikusiko ditu sorotan, eta limoiondo lerdan bat lorategi izkinan. Iparretik babestuta, beti hegoari so.

Galtzerdiak busti zaizkit, ama.

Irati izena aukeratu zuen amak niretzat. Ez hain justu basoagatik, ezpada ibaiagatik.

Baina nik beldurra diot urari.

Itsasotik inoizko gertuen bizi naiz orain, denboraleak datorrenero pasealeku zati bat lapurtzen dion hirian. Orduantxe egoten da kaleko paisaia ederren; zaborrontzietan aterki hautsiak pilatzen diren

egun grisetan. Euritakoa jantzi eta liluraz gerturatzen naiz olatuak ikustera, lehenago edo beranduago blaituko naizela jakitun. Bada zerbait tira egiten didana.

Uda garaian ere ez naiz askoz ere barrurago sartzen. Itsaso zakarrari baino puska beldur handiagoa diot bareari. Ustezko geldotasun horri. Gaziari baino gezari. Bere baitan marea bizirik sortzen ez zaionari. Gainean etzaten uzten ez dizunari. Hondoraino zaramatzenari.

11

1993an hasi ziren urtegia eraikitzen, ni jaio baino hamazazpi urte lehenago. Denbora dilatatu egin zela kontatzen dute; barrurantz plegatu eta alboetarantz hedatu, hein berean. Heriotza geldoa izan zela, eta berarekin ekarri zuela dolu antizipatu bat, halabeharrez, hasiera-data konkreturik gabea.

Izan ere, zenbat dira hogeit hamar urte etxea utzi beharko duela badakienarentzat?

Zenbat, ura noraino helduko ote den asmatu nahian dabilenarentzat?

592 metro. Halaxe erabaki zuten. Ez gehiago eta ez gutxiago. Paperetan marra zuzena zena eramanez nahi izan zuten lurrera, erliebea ere erregelaz, eskuairaz eta kartaboiz zirriboratu ahalko balitz bezala.

Batzuetan, urak erre egin lezake.

12

Bost egun daramatzat amarekin hitz-erdirik trukatu gabe. Orain hurrena hitz egin genuenean, eskegi egin nion telefonoa. Ez dut gogoratzen konkretuki zer dela-eta haserretu ginen. Bakoitza bereari eusten tematuko ginen, beste behin. Urteak daramatzagu hala; nor bere harrizko hormari katez lotuta.

13

Urtegia betetzen hasi zirenez geroztik, ezin konta ahala dardara izan dira Itoitz inguruan. Irakurri dudanez, gainera, lurrikaretako zenbaiten epizentroa urtegiaren sakonunean erregistratu izan da. Hain zuzen ere, garai batean Artozki izandako eremuan bertan.

“Zer leku polita!”.

Pasaeran dabilenak presako ura bare-bare dagoela pentsatuko du, agian; baliteke ez antzematea urertzean desegiten diren olatu txikien kulunka baizik. Memoriak gainez egiten du, ordea, luiziak lez. Ura ez dago geldirik. Eta lurra ere ez.

14

Ama, sar al naiteke pixka bat barrurago?

15

Galdetu nahi nioke zein armairutan gordetzen dituen argazki zaharrak, egunkari txatalak eta amesgaiztoak. Baldin eta oraindik gordetzen baditu.

Galdetu nahiko nioke zer esangura duen berarentzat *komunitate* hitzak. Zer esan nahi duen *urak*, zer *lurrak*. Zer *borrokak*, eta zer *herriak*. Bere egiten ote dituen poeta handiek azken honi buruz idatzitakoak.

Galdetu nahiko nioke zenbat aldiz berritzen zaion inpotentzia urtaro aldaketekin bat. Zenbateraino tristatzen den euria entzuten duenetan. Edo, kontrara, abesteko gogoia jartzen ote zaion, edo dantzarakoa. Geratu ote den inoiz iturriren bateko txorrotari begira, hipnotizaturik. Bete ote duen sekula bainuontzia gatzez, eta malkoz.

Galdetu nahiko nioke non daramatzen ur-markak; zein altueratan zehazki. Orkatilen, belaunen, aldaken parean dituen, bularraldean, edo are leporago iristen ote zaizkion.

Zergatik ezkututzen dituen.

16

Orduak joan zaizkit eskumuturrei beha. Komuneko argipean haztatu ditut nahita; nire azala tipula-paper bihur zedin. Errekasto ubelak marraztu ditut poliki-poliki, isurian, ahurretatik hasi eta besoetarantz bidea egiten. Ez dut kilimarik sentitu.

Susmoa dut zainetan ura dabilkidala odolaren partez. Batzuetan gertatzen da, eraunsi batek zeharkatzen gaitu goi eta behe, eta oraintsu arte gugan lozorroan zirauena esnarazten du, ustekabean.

Irratia entzuten dut urrunean, esatariek bart gaueko futbol partida izan dute mintzagai. Eguraldigizonaren ahots grabea heltzen zait orain belarrietara; ondorengo orduetan ekaitza leher daitekeela iragarri du. Pareko bizilaguna goizean esekitakoak jasotzen presatu da. Ez dauka izarak txukun tolesten lagunduko dion inor.

Uholdeak datozkit eztarrian gora.

17

Pitzatu zaizkit uhateak.

Ahalegindu naizen arren, ezin izan diot gehiago eutsi. Amari idatziko diodala erabaki dut. Behar beste denbora pasatu da behin honetara ezker eta jada ez dut azken elkarrizketa hura utzi genuen lekutik behartzeko beharrik sentitzen. Pentsatu nahi dut amak ere ezetz. Diotenez, urak mugimendua behar izaten du garbi dadin.

Hasieran zalantza egin badut ere, azkar baztertu dut deitzeko aukera. Itzuri egin diot ahots-mezu bat bidaltzeari ere. Mihia korapilatzen zait horrelakoetan, eta gaurkoz nahiago dut bera arduratzen bada nire hitzei ahotsa jartzeaz. Idatzi-ezabatu ezabatu-idatzi ibili naiz tarte labur batez. Masterreko lan

baterako dela esango diot. Uda heltzear dela, eta bisitan joan gaitzkeela laster, berak nahi duenean.

Zuzen igorri diot mezua, hoztasun aire aukeratu batekin. Emotikonorik ere ez dut erantsi apropos, pentsatuegia iruditu ez dakion.

“Ama, entzun al duzu goizean irratikoa?”

Gautzen hasi berri da eguna, harrotu da haizea, baina, oraingoz, bueltan ez dut jaso isiltasuna besterik. Isiltasuna xuxurlan, eta bi tik urdin.

18

Ama, hemen ez dago ezer.

\*Narrazio honek Ingeborg Irati Díez Elizalderen “Cuando la sangre se convierte en agua. Un estudio antropológico sobre la experiencia de abandonar el pueblo a raíz de la construcción del pantano de Itoiz” lana izan du inspirazio iturri.